



LIBURUTEGIA ZURE ESKU

LIBURUTEGIA UZTEKO AKORDIOA

Udalaren Liburutegi Sareak ikastetxeei liburutegiak baliabide gisa erabiltzeko aukera eskaintzen die, hezkuntza jarduerak era autonomoan garatzeko. Ikastaldeak liburutegiko funtsak eta espazioak dohainik erabili ahal izango ditu, beste inorekin konpartitu gabe eta irakaslearen edo tutorearen ardurapean.

Lehenengo saioan bisita gidatua egingo da, derrigorrez. Horretan zerbitzuko oinarritako araudia azalduko da eta saio hau egin gabe ezingo da parte hartu. Taldeko arduradunak dokumentu hau sinaturik ekarri beharko du.

Akordio honen bitartez Gasteizko Udalak adierazitako liburutegia erabiltzea eskaintzen du adostutako epe eta ordutegietan eta hauetako baldintzekin:

- **Erabilpen bakoitzak gehienez 60 minutu** iraungo du.
- Taldeko arduradunari liburutegia edo/eta gainerako tokiak (komunak, sarrerako ateak, pasabideak, helduentzako liburutegiak) ireki eta ixtea dagokio, aurretik adostutako ordutegiak errespetatuz. **Giltzak gizarte etxeko informazio bulegoan jaso egingo dira eta saioa bukatu ostean agenteei itzuliko zaizkie.**
- Liburutegiko ekipo informatikoak ez dira ezertarako ukituko.
- Lehenengo bisitan liburuzainek azalduko dizkiote taldeko arduradunari espazioaren oinarritako araudiak: sarbidea, tokia, irekitzea eta ixtea, argiak, materialen eta funtsen antolaketa eta erabilpena, eta abar.
- Ikastalde bakoitza bere irakaslearekin batera joango da, eta irakasle horren ardura izango da haiek behar bezala portatzea jarduera gauzatzen den bitartean. Jarduerak iraun bitartean arduraduna beti egon beharko da. Eskabidea onartu ondoren jarduera horretara joaterik ez badago, gutxienez hiru egun baliodun lehenago jakinarazi beharko da. Aurreikusitako datan agertzen ez bada eta justifikazio nahikorik ematen ez badu, ez da aukerarik izango beste data batean parte hartzeko.
- Taldeko arduradunak dokumentuak, instalazioak eta liburutegiko gainerako tresnak zuzen erabiltzeko konpromisoa hartzen du. **Liburutegiko ordena garrantzitsua da.** Apaletatik atera bakarrik **erabiliko diren liburuak** eta, **bukatzean, utzi** adierazitako tokietan, hau da, **karroetan eta horrelakoak ez daudenean liburuzainen mahai gainean**. Liburuzainek ordenatuko dituzte.
- Saioa bukatzean, taldeko arduradunak espazioa txukun gelditu dela ziurtatuko du:
 - Konprobatuko du apalategietako materiala dagokion moduan gelditu dela (erori gabe, ezta tolesturik ere). Era honetan liburuak ez dira hondatuko.



- Liburuak jaso barik geratuko balira gurdian utzi.
- Aulkiak eta eserlekuak aurkitu diren bezala utzi.

- Kalte materialak gertatu, liburuak hondatu edo galduz gero taldeko arduradunak berriak birjarri beharko ditu. Lana agortuta balego, antzeko batez ordezkatu beharko luke, liburutegiarekin ados jarrita.

- Ez dago instalazioan jan edo edaterik.

- Funtsak ezin izango dira liburutegitik atera. Taldeak funtsen mailegua eskatu nahi izanez gero zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko da, horrek eskaeraren bideragarritasuna ikusiko du eta maileguaren baldintzak adieraziko ditu.

- Edozein kalte, hondatze edo gertaera antzemanaz gero lehenbailehen adierazi beharko da telefonoz (945 161616 - 4856) 8:00etik 15:00era edo posta elektronikoz bibliobisitak@vitoria-gasteiz.org.

- **Araudia ez betetzeak programan berriro parte hartzeko aukera ez izatea ekar dezake berekin.**

- Udalaren Liburutegi Sareak bazkide egiteko inprimakiak eskainiko ditu.

Behean sinatzen duenak onartu egiten du eta ados dago ezarritako baldintzekin:

Arduraduna:

Sinadura:

Gasteizen, (e)ko ren (a)n.